



A.9 Ikastaroa

HIRIA ETA POBREZIA: “HIRIEK GARAPEN PROZESUAN DUTEN ROLA”

Dirigido por: Kepa Korta Murua, *Donostiako Estrategia Bulegoa*
Alfonso Martínez Cearra, *Bilbao Metropoli-30*

Lugar: Miramar Jauregia. Donostia/ San Sebastián

Objetivos: Pobreziaren eta hiriaren arteko loturaren eboluzio historikoa maiz ezezaguna izan da topikoen edo Charles Dickens edota Victor Hugoren eleberriez gain. Izan ere, desberdintasunaren, eskasiaren eta abarren sorreran izan duen rola bezalako alderdiekin, nekazaritza eremuetan hedatuta dauden biztanleak erakartzeko ahalmenarekin, bai eta hiriko aberastasun eta pobreziaren arteko bizikidetzarekin ere, erlazionatu da.

Gaur egun hirietako pobreziaren jatorriaren gaineko hausnarketak lehen mailan kokatzen dira. Krisiak, migrazioek eta abarrek arazo hau lehenetsun bihurtu dute hirien kudeaketan, sarri kultur adierazpenen edo hedabideen bitartez (eleberriak, filmak, egunkarietako erreportajeak, Espainiako pobrezia irudikatzen zuena bezalakoak, etab.) agertzen zaigun azpimundu ezezagun bat izaten jarraitzen duen arren.

2010ean, EBko 15,5 milioi biztanle pobrezia arriskuan zeuden. Zifra honek gora egiten jarraitzen du krisiaren eragin bortitza dela eta, baina ez bakarrik horregatik; arazo ekonomikoez gain, lotura duten beste batzuk ere badaude: gizarte-, lan-, kultura-, familia- edo osasun-arazoak. Era berean, pobrezia hirian ghetto kulturalak sorrarazten ditu.

Genero problematikak eta adinekoen arazoak, familia-unitateen tamainaren zein adinekoak ingurune babestuan mantentzen zituzten laguntza-harremanen murrizketaren ondorioz, bai eta aldaketa demografikoen ondorioz ere, ugaritzen diren pobrezia egoeretan. Bizi-itxaropenaren hazkundeak.

Gizarte zibilak pobreziaren aurkako eragile nagusietako bat izan behar du. Boluntarioek eta herritar aktiboek kohesio soziala sustatu eta desberdintasuna arindu behar dute, pobrezia egoera berriak sorrarazi dituzten kaleratzeen aurkako mugimenduetan bezala, protagonista rola hartuz.





Pobreziaren aurkako borrokak indar politiko guztien gai-zerrendan egon behar luke. Pobreziaren kronikotasuna sarri saihestezintzat hartzen da eta espazio-segregazio politikak bultzatzen dira pobrezia errotik ateratzeari indarrez heldu ordez.

Ikastaroaren helburua arazo hau ikuspegi historiko, sozial, ekonomiko eta hirigintzaketik aztertzean datza. Hirian pobrezia nola eta zergatik sortzen den, eta XX. mendeko hirietan pobrezia saihesteko erabili ditzakegun mekanismoak ikertzen saiatuko gara.

Horretarako, hiriaren eta pobreziaren gaineko azalpen historiko bat oinarri hartuta, hirietan pobrezia eragiten duten arrazoiak eta bertan duen eragina (narriadura soziala, adingabeen rola, osasuna, segurtasun falta, hiriaren narriadura, etab.) aztertuko ditugu, ingurune ezberdinetako adibide desberdinak kontuan hartuz.

Azkenik, pobreziaren aurkako borrokan aurrera egitea lortzen ari diren hiri ereduak zehaztuko ditugu, eta hiriek pobreziaren aurrean hartu beharko lituzketen neurriak eztabaidatuko ditugu.

Bilbao Metropoli-30 eta Donostiako Estrategia Bulegoaren lankidetzarekin

Matrikula prezioa: 68 €

Balio akademikoa: 20 ordu

Hizkuntza ofiziala: *gaztelania*





EGITARRAUA



ABUZTUAK 29

- 09:00etan Dokumentazio banaketa
- 09:15etan “Europa 2020 estrategia, Europar Batasunaren gizarte-politikak eta hauek hirietako pobrezian eta gizarte-bazterketan duten eragina”
Graciela Malgesini Rey
EAPN ES Pobrezia eta Gizarte Bazterketaren kontrako Europako sarea. Madril.
- 10:00etan “Hirietako pobrezia: Euskal Herriko egoera konparatua eta diru-sarrerak bermatzeko euskal sistema”
Luis Sanzo
Gobierno Vasco/ Eusko Jaurlaritza. Vitoria-Gasteiz.
- 11:00etan Etenaldia
- 11:30etan “Pobrezia errealitate berriak: ezkutuko pobrezia egoerak”
José Emilio Lafuente
Cáritas Gipuzkoa. Donostia-San Sebastián.
- 12:30etan “EAEko hiru hiriburuetako muturreko bizileku-bazterkeriari buruzko azterlana”
Iñigo Estomba
Gizarteratze Zerbitzua, Donostiako Udala. Donostia-San Sebastián
- 13:30etan Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa





ABUZTUAK 30

- 09:00etan "Ikuspegi antropologikotik funtsezkoak diren alderdiak" (generoa, kultura aniztasuna, etab.)
Begoña Pecharroman
FARAPI-Antropología Aplikatua. Donostia / San Sebastián.
- 10:00etan "Hirietan eragina izan dezaketen ahultasun soziodemografiko (zahartzea eta immigrazioa) eta sozioekonomikoak (desberdintasuna eta kapital sozialaren murrizketa)"
Imanol Zubero
CIVERSITY ikerketa taldea
UPV-EHU. Euskal Herriko Unibertsitatea
- 11:00etan Etenaldia
- 11:30etan 4. sektorea: "Enpresa-jarduera gizarte-xedeekin garatzea"
Moderatzailea: Alfonso Martínez Cearra
Bilbao Metropoli-30. Bilbao
Lidia Del Pozo
BBVA. Madril.
Juan Felipe Puerta
IBERDROLA. Bilbao.
Fernando Garrido Tomé
MAPFRE Fundazioa. Madril.
David Baringo Ezquerria
IDOM. Zaragoza.
- 13:30etan Laburpen saioa / Bibliografiari buruzko saioa

INFORMACIÓN E INSCRIPCIONES - ARGIBIDEAK ETA IZEN EMATEA

Secretaría de los Cursos - Ikastaroen Idazkaritza